



DSS2016.EU



ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

2015-08-17, **ABUZTUKO SAIOAREN MEMORIA**

SAIOAREN HELBURUAK:

- ▶ ***Uztailean jasotako proiektuen artean hausnarketa eta esleipen ariketa egin talde lanean.***
- ▶ ***Hautatuko proiektuen onarpena.***
- ▶ ***Balorazioak: egunekoa zein orokorra.***
- ▶ ***Irailerako saioaren eskema adostea***

PARTAIDEAK:

- ***2016 BULEGOTIK:*** Enara Garcia, Partaidetza Zuzendaritza; Mikel Goñi, Energia Olatuak programaren arduraduna.
- ***ARDORA LAN TALDEA:*** 13 partaide, 8 emakumezkoak eta 5 gizonezkoak.
- ***AZTIKER IKERGUNETIK:*** Teknikari bideratzaileak: Markel Ormazabal eta Susana Martinez.

ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

1. SARRERA ETA SAIOAREN KOKAPENA


Saioaren helburuak kokatu dira Ardora lan taldearen funtzio zehatzen baita, eta zehazki, Energia Olatuak programara uztailean zehar aurkeztu diren proiektuen esleipena kategoria bakarraren arabera:

-2.016€ko 5 proiektu



2. IRIZPIDEEN ERREPASOA

Balorazio kuantitatiboak egiteko adostutako irizpideak berriro ere kokatu dira eta errepasatu dira, fitxatan landuko diren orden berdinean:



Horiek kokaturik, gaurko dinamika nola garatu den kokatu da.

ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

3. HAUTAKETAK EGITEKO LAN DINAMIKAK

Orain arteko lan dinamika egokitzea proposatzen da. Egokitzapenak partaideen balorazioetan oinarriturik egin dira, eta helburua da bai dinamika eta baita emaitza ere hobetzea. Horrela, partaideek saioen iraupena zaintzea eskatzen dute, eta horri begira, dinamika egokituko da.

Egokitzapenak balorazio kuantitatiboan izan dira batez ere, eta honela azaltzen dira:

- Aurrekoetan zalantza sortu izan da ea irizpidez irizpide baloratu behar zen, edota totalaren gainean eginik ere emaitza bera, etekin eta erabilgarritasun hobea lortuko ote litzatekeen.

Hori kontuan izanik, dinamika honela garatzea proposatzen da:

- Lan talde bakarrean baloratuko dira 29 proiektuak
- Bakoitzak irizpideen balorazioa egingo du bere fitxan, eta amaieran fitxa entregatuko du.
- Soilik konpartituko dira totalak, eta totalen gainean egingo dira hurrengo balorazioak.
- Balorazio kualitatiboa egiteko 29 proiektuak hartuko dira kontuan, eta horien gainean egingo da hautapen kualitatiboa.



Zuzenketa bat azaldu da bidalitako taularen gainean:

- Ez dira baloratuko 29 proiektu baizik eta 28, 233 kodea duen proiektua momentuz baztertua izan baita, eskatu zaizkion zehaztasunak aurkeztu ez dituela eta.
- Horrela, eta partaide bakoitzak fitxa eskuan duelarik, ariketa egin da. Konpartitutako totalen arabera, emaitza kuantitatiboa behatu da, eta azpimarratu dira zeintzu proiektu dituzten balorazio altuenak. Segidan, partaide bakoitzak bere bost gometza banatu ditu gustukoa eta nahi izan dituen proiektuen gainean. Ariketak eginik, jarrian azaltzen da sorturiko emaitza:

ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

230	232	233	234	235	236	237	238	239	240	241	242	243	245	246	247	248	249	250	251	252	253	254	255	256	257	258	259
1	2																										
32	14		7	41	-16	-20	-20	18	26	-3	11	-15	17	-15	5	-22	17	11	-11	-20	-11	18	32	3	9	29	-25

ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

	KODEA	226	230	232	234	235	236	237	238	239	240
2.016€	IZENA	ESKLABUTZAREN INGURUKO DANTZA IKUSKIZUNA	Gure ARTEan	Papiroflexia, gai naiz!	Kaleko artea sustatzea- Promoción del arte en la calle	ELKARRIZKET A TXIKIAK	Concierto de musica clásica vasca y polaca	CICLO DIDACTICO FLAMENCO	Esan musika formazioa bultzatzeko ekimena- Formación musical en Yesa	BALEGUR	Picnic and Kraft
	BALORAZIOA	-14	32	14	7	41	-16	-20	-20	18	26
	TOTALA										

	KODEA	241	242	243	245	246	247	248	249	250	251
2.016€	IZENA	Conciertos con arte	Ametz Giltza. La llave del Faro	Creación de un libro de artista	Muxu Goxo on-line ikastaroa/ Cursillo on-line Muxu Goxo	Concierto, festival;inauguración de la nueva Escuela Superior de Música Biurrun	Edozein Donostia	Patios sonoros- Música Biurrun	Umeentzako artea- Arte para niños	Lamiak, film laburra	Su artifizialak, aretoko erakusketa
	BALORAZIOA	-3	11	-15	17	-13	5	-22	17	11	-11
	TOTALA										

	KODEA	252	253	254	255	256	257	258	259
2.016€	IZENA	Su artifizialen inguruko liburua	Los fuegos desde todos los rincones de Donostia. 20.160 Exposición exterior	Pecha Kucha saioa	Concierto pro Uganda	Velada musical, "Polonia más cerca- viaje musical"	Ilargia arrantzatzen	Recreación foto histórica	Poch en la playa
	BALORAZIOA	-20	-11	18	32	3	9	29	-15
	TOTALA								

ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

Behin partaideek haien lehen balorazio kualitatiboa eginik, azpimarratu dira bost proiektu. Zehazki, puntuazio altua izateaz gain (15 baino gehiago), sei gometza baino gehiago jaso dituzten proiektuak azpimarratu dira. Bi balorazio horiek eginik, eta ordena zehatzik gabe, honako proiektuak izendatzen dira **2.016€ko diru-laguntza jasotzeko:**

- ▶ **KODEA 235: Elkarrizketa txikiak.**
- ▶ **KODEA 239: Balegur.**
- ▶ **KODEA 240: Picnic and kraft.**
- ▶ **KODEA 255: Concierto pro Uganda.**
- ▶ **KODEA 258: Recreación foto histórica.**

Bost horiek izendatzeaz gainera, beste hiru proiektu hautatu behar dira ordezeko gisa. Ordezkoek bai izan behar dute ordena zehatza. Horretarako, zehaztu dira zeintzuk izan daitezkeen hautagaiak, zehazki, bi irizpide hautakoren bat betetzen duena:

- Puntuazio altua edota positiboa jaso dutenak
- Lau Gometzetatik gora jaso dutenak



Taularen errepasoa eginik, 7 proiektu azaltzen dira horretarako hautagai gisa. Horiek guztiak maila berean balora daitezkeela eta, partaide bakoitzak gometza gorri bat ipini du horien artean esleituko lukeen proiektuaren gainean. Emaitzean, argi ikusten da zein izango den lehen ordezkoa, baina aldiz, enpatea gertatu da bi proiektuen artean. Berriro ere gometza batekin balorazioa egin beharrean, hausnarketaren bidez erabakia hartzera gonbidatu dira partaideak. Hauek dira enpatea jaso duten proiektuak:

- Kodea 245: Muxu Goxo
- Kodea 254: Pecha Kucha saioa

ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

Honakoak izan dira baloratutako hausnarketak:

- Muxu goxok, lehen ere diru-laguntza jaso du. Horri begira, eta diru-laguntzak ahalik eta lehen zabaltze aldera, Pecha Cucha esleitzea ongi legoke.
- Era berean, lehen diruz lagundutako proiektuaren segida izanik, proiektua indartzea eta borobiltzea dela ere esaten da, eta horrek merezi duela, proiektua erabat osatzea ekar dezakelako.
- Sexu heziketaren garrantzia indartzea, kulturaren ikuspegi zabala ere indartzea da, eta kulturaren esanahi zabala indartzen du.
- Pecha cucha saioak asko zabaltzen du partaidetza, eta partaidetza irizpide garrantzitsua da.



Gometza more batekin egin da azken balorazioa. Berriro ere enpatea ikusirik (gometza moreen gainean), hausnarketa zabaldu da beste behin, eta argudio ezberdinen ondoren, partaide batek erabaki du bere gometza mugitzea, eta ondorioz, enpatea amaitzen da. Horrela, jarraian azaltzen direnak dira, eta ordena horren arabera, esleitzen diren ordezko proiektuak:

- ▶ 1. Ordezkoa= 230 KODEA: GURE ARTEan
- ▶ 2. Ordezkoa= 232 KODEA: PAPIROFLEXIA, GAI NAIZ!
- ▶ 3. Ordezkoa= 245 KODEA: Muxu Goxo, on line ikastaroa

Beraz, hiru horiek eta ordena horretan izendatzen dira, eta aurreko baten batek erretiratuko balu horiek izendatuko dira.




ARDORA LAN TALDEA:


Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

4. BALORAZIOA:

Berriro ere partaide denei eskatu zaie saioaren balorazioari dagokion galdetegi betetzea:

1. SAIOari dagokiona, hots, 2015-08-17 dataren saiokoa.
 - a. Galdetegiaren betetzea dela eta, azpimarratzen da aldiro aztertzen direla puntuazioak eta horien baitan saiatzen ari direla egokitzapenak egiten aldiro.
 - b. Aurreko saioetan bezala, talde balorazioa egiteko, hiru koloretako itsas argien bidez posizionatzea eskatu zaie partaideei eta hauxe izan da emaitza:

	Saioa ez zait batera gustatu, ez dut ikasi, ez informazioa jaso. Metodologia ere ez zait oso egokia iruditu. Orokorrean sentrazio ezkorra dut.
	Besterik gabeko saioa izan da, informazioa jaso dut baina zalantza askorekin. Gehiegi ez dut ikasi eta metodologia besterik gabekoa izan da. Orokorrean sentrazio epela dut.
	Saioa egokia izan da, ikasi dut eta informazioa jaso dut. Metodologia egokia izan da eta sentrazio onarekin noa.

Hiru kategori horien arabera **Denek** hautatu dute **itsas argi berdea** =  eta horretarako honako balorazio solteak aipatu dituzte:

- ✓ Bilera ongi egon da, eta dinamika azkarragoa izan da, arinagoa. Azken emaitza ateratzeko ariketa oso erraz joan da, eta nabaritzen da ariketaren esentzia jasota geratzen dela.
- ✓ Metodologiarekin ongi eta iraupenarekin ere oso ongi. Oso ekimen ausarta eta interesgarria iruditu zaio, eta oso esperientzia motza egin zaio. Ziurtasuna ere jasotzen da praktikarekin, eta hori garrantzitsua da.
- ✓ Ahal bada, berriro ere azkartzera jo behar da, eta emaitzak gehiago baloratzera bileran.
- ✓ Ziurtasuna hartzen da, eta zaila ematen zuena errazten doa.



ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

5. AGURRA ETA HURRENGO URRATSEN ERREPASOA

Bilera amaitu aurretik aipatu da irailleko saioan bi kategorien arabera esleitu behar diela proiektuak:

- 2016€ kategoriaren arabera 5 proiektu (bilera honetan bezalaxe)
- 20160€ko kategoriaren arabera, proiektu bakarra

Dagoeneko 20160€ kategoriarako ia 60 proiektu jaso dira. Hori dela eta, hausnartu behar da metodologiaz. Aukera ezberdinak jarri dira mahai gainean, eta honakoa garatzea erabaki da:

ARDORA 1 lan taldeari deituko zaio eta eskatuko zaio berak esleitzea **2016€** kategoriaren arabera.

ARDORA 2 LAN TALDEAK esleituko du 20160€ proiektua. Baina horretarako etxean honako lanak egingo ditu:

- partaide erdiei bidaliko zaizkie 30 proiektu kuantitatiboki baloratzeko. Taula eginik, bueltan bidaliko dute.
- Hirurogei proiektuen artean, 10na baloratuenak ekarriko dira saiora. Horien emaitza kuantitatiboa errepasatu, eta horien guztien deskripzioa entzunda, taldean, saioan egingo da balorazio kualitatiboa.
- Bi balorazioen emaitza kontuan izanik, hausnarketa partekatua egingo da, eta proiektu bat hautatuko da taldean.

Beraz, eskatzen da etxeko lanei asko erreparatzea, eta beranduenez 15ean bertan goizean taula beteta bueltatzea eskatzen da. E-postaz egiteko asmorik ez dutenak, bulegora etor daitezela proposaten zaie, bai taula hutsa jasotzeko, eta baita taula beterik uzteko.

Eta asko eskertuz eskainitako denbora eta emandako guztia, txalo zaparradarekin amaitu da saioa.

Horrenbestez, bilera amaitutzat eman da iluntzeko 20'35etan.

Donostian, 2015eko abuztuaren 17an.